

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Las culebras.
Las Culebras.
Autoekoizpena.
Iraupena: 33'05".
10 euro.

Gitarra riff indartsu eta melodia itsaskorren ziztada

SEGURUENIK Las Culebras izango da gaur egun Euskal Herrian dagoen neskek osatutako talde bakarra, nahiz eta iruindar hauek ez dioten horri inolako garrantzirik eman nahi. Musika pasioztatzen zuten bi lagun elkartu eta jotzen hasi ziren 2004an, inongo helbururik gabe. Rock-and-rolla maite dute eta hortik abiatuta, poliki-poliki kontzertuak egiten hasi ziren, eta halako batean lerrootan jaso dugun aurreneko diskoa

idatzi eta grabatu zuten. Honako laukoteak punk-rocka, rock-and-rolla, power-pop eta hard-rocka batzen ditu, gitarra riff oso dotoreekin, melodia eta koro itsaskorrekin eta, beti ere, erritmo askorekin. Laurek ingelesez abesten diote gauari, rockari eta ondo pasatzeari. Martxoan berriro estudioa sartzeko asmoa daukate, baina bitartean, egizu ahalegina Las Culebras areto txiki batean ikusteko. Ez zara damutuko.

Olaia Heep - Las Culebras

«Gurea ez da nesken aldeko kontu bat, musika egitea baizik»

Taldea lau neskek osatzen duzue. Zaila da "neska-talde" etiketa gainditzea? Hau da, egiten duzenagatik ezagutzea?

Baietz uste dut. Guk adibidez lehen, baterian mutil bat genuen eta berekin oso gustura geunden. Haren ordezkoa bilatzean berdin zitzaigun mutil bat edo neska bat izatea. Karmen agertu zen eta egia da laurok neskek izanda bes-telako konplizitatea daukagula, baina gurea ez da nesken aldeko kontu bat; gure helburua da musika egitea. Eta nahiko genuke jendeak hori baloratzea. Jakina, jendea musika egiten animatzen dugu, bai neskek eta bai mutilak.

"I've sold my soul to rock-and-roll". Asko aldatu da zuen bizitza taldea osatu zenutenetik?

Ez horrenbeste. Seguruena parranda gehiago egiten ditugu. Agian aldaketa handiena da musika betidanik asko sentitu badugu ere, orain bizipen hori indartsuagoa

dela. Beste aldean gaude eta horrek biziagoa bihurtzen du.



Diskoa emaitza ona dela esango nuke. Gustura gelditu zarete?

Bai, oso gustura. Taldea sortu genuenean zeretik hasi ginen instrumentuak jotzen eta orduan ez genuen pentsatzen inoiz kontzertu-

rik egingo genuenik; inoiz ez dugu helbururik jarri. Lehenengo aldia

zen grabazio estudio batera sartzen ginela, eta hitz batzuk oso landuta ez dauden arren, gure ustez txukuna da egindakoa.

"When I'll be a rock-and-roll star, then you'll be my man". Gizonak sufriaraztea da zuen helburuetako bat?

(Barre). Abesti hori Kristinak idatzi zuen zorigaiztoko harreman bat bizi zuela. Bestela, mutilekin ondo pasatzea eta guri afaria egitea da gustatzen zaiguna.

Diskoa autoekoiztea hala-beharrez izan da edo hala nahi zenuten?

Esan beharra dago oso alferrak garela eta gainera ez genuen inongo aterik jo. Inori ezer eskatu gabe egin genuen eta puntu. Denbora eman genuen grabatzeko dirua bildu arte. Bigarren lana ere seguruena antzera egingo dugu. ■